

## ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA IREKITZEA, PARTE HARTZEKO PROZEDURA ETA HAUTAKETA-PROZESUEN GARAPENARI BURUZKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.

### 1. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA IREKITZEA

Hurrengo hautaketa-prozesurako eskabideak aurkezteko epea ireki da; prozesu horiek Donostia Sustapena S.A.k 2022rako sustatutako lan eskaintza publikoaren modalitateei dagozkienak dira.

Hautaketa-prozesua	Postua	Hautaketa-sistema	Sarrera-modalitatea	Plazak guztira	Euskara	Lan eskaintza publikoa
1	Ekonomia-Garapeneko eta Merkataritzako Teknikaria	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	3	C1 nahitaezkoa	Enplegua egonkortzeko deialdi berezia 2022
				1	Meritua	

Parte hartzeko eskabideak izapidetzeko epea hamar (10) egun baliodunekoa da, epea ireki dela jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, ondoko helbide elektronikoan: <https://www.fomentosansebastian.eus/es/contratacion>, zehazki **2023ko abenduaren 1etik abenduaren 18 ra**.

Eskabideak, ondoren zehazten den prozeduraren arabera aurkeztu beharko dira.

### 2. PARTE HARTZEKO PROZEDURA

#### 2.1. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza orokorren eta espezifikoen egiaztagiria erantsi beharko dira (ikusitako oinarri orokorrak eta espezifikoa); era berean, alegatzen diren merezimenduei buruzko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da (merezimenduak formularioan jaso beharko dira).

Aurkeztutako dokumentu guztiek jatorrizkoak, kopia kautoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dute, eta Oinarri Orokorrek Eransteari buruzko atalean adierazitakoa kontuan hartu beharko da (egiaztapen sinesgarria egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa, hautatua izanez gero).

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren batean dagoen dokumentazio oro zinpeko itzultzaile batek itzuli beharko du, hura baloratu ahal izateko. Frantses, ingeles edo aleman hizkuntzen maila justifikatzen duten titulu ofizialak itzulpen behar horretatik salbuetsita daude.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da onartuko inolako dokumentaziorik aurkeztea, aldez aurretik alegatutako informazioari buruzko datuak egiaztatze edo zabalteko Donostia Sustapenak berriaz eskatutakoa izan ezik.

Bai oinarri orokor eta espezifikoak bai deialdiaren oinarri orokor eta espezifikoaren arabera hautagaiari dagozkion merituak egiaztatzeke aurkeztu beharreko dokumentuak, honako hauek dira:

- A. NANA edo identifikazio agiri baliokidea.
- B. ESKATUTAKO TITULAZIO AKADEMIKO OFIZIALA: Hautaketa-prozesuan eskatutako titulazioak luzatzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edo titulua bera. Atzerriko titulazioen kasuan, horien homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.
- C. EUSKARA: Eskatutako titulazio ofiziala, dagozkion oinarri espezifikoetan lanposturako adierazitako berariazko baldintzen arabera.

Halaber, izangaiek euskararen ezagutza egiaztatzeke proba egin nahi duten ala ez adierazi beharko dute, lanpostuan sartzeko baldintza ez den kasuetan, eta gutxi gorabeherako hizkuntza-maila adierazi beharko dute. Proba hau egiteko nahia eskaeran berariaz adierazi ez duten pertsonak ez dute proba hori egiteko eskubiderik izango.

D. ESPERIENTZIA PROFESIONALA:

Erakundearen bertan (Donostia Sustapena) egindako zerbitzuak eskatzaileak berak alegatu beharko ditu, eta ofizios hartuko dira kontuan; kasu honetan ez da beharrezkoa izango egiaztagiririk aurkeztea.

Gainerako erakunde publikoetan egindako zerbitzuak alegatu eta egiaztatu beharko dira dagozkion egiaztatzea aurkeztuz, edo, hura eskatu izanaren frogagiria aurkeztuz. Dokumentu aipatuan, erakunde bakoitzak erabakitzen duen ereduaren informazio hau banakatu beharko da kontratazioaldi bakoitzerako (\*): lanpostuaren izena, kategoria, hasiera data eta amaiera data, egindako zerbitzuen iraupena (egunetan adierazita), lanaldiaren ehunekoa (\*\*) eta eginkizunen deskribapena.

(\*) Izendapen edo kontratu biren edo gehiagoren artean etenik ez badago, batera alega daiteke merezimendu bakar gisa, lehenengoa hasten denetik azken amaitu arte, baldin eta erakunde berean eta plaza/lanpostu, lanaldi eta eginkizun berean badira.

(\*\*) Emandako zerbitzuen iraupena (egunetan adierazita) lanaldiaren ehunekoa kontuan hartuta kalkulatzeko bada, adierazi egin beharko da.

Lanbide esperientzia baloratzeko, izangaiek kasu guztietan zehaztu eta egiaztatu beharko dute zenbat denbora eman duten eszedentzia-egoeran senitartekoak zaintzeagatik edo genero indarkeriagatik; zenbat denbora egotz dakiekeen amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanakoa modu erantzunkidean uztartzen erraztea helburu duten lanaldi murrizketei eta baimenei; eta zenbat denboraz erabili dituzten genero indarkeriagatik baimenak enplegatu publikoek. Egiaztapen hori egitea ez da beharrezkoa izango, Donostia Sustapenean lan egiten den aldiaren gertatu bada.

- E. BESTE TITULU AKADEMIKO OFIZIAL BATZUK, BEREZKO UNIBERTSITATE TITULUAK ETA PRESTAKUNTZA AKADEMIKO OFIZIALA: Titulua edo hura luzatzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Atzerriko titulazioen kasuan, horien homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.

- F. **BESTE PRESTAKUNTZA-IKASTARO BATZUK:** Alegatutako ikastaroaren tituluak edo ziurtagiriak, ondoko informazioa gutxienez jasoz: ikastaroaren titulua, prestakuntza-orduen kopurua, data eta prestakuntza hori ematen duen erakundea.

Egindako prestakuntza-ikastaro guztien akreditazioa aurkeztu beharko da, Donostia Sustapenean egindakoarena barne.

- G. **ATZERRIKO HIZKUNTZAK:** Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, baliokidetasun aitortua duten titulazio edo ziurtagiri ofizialak.

- H. **EZAGUTZA INFORMATIKOAK:** IT Txartel Ziurtagiriak, maila zehaztuz, hala badagokio.

## 2.2. ESKABIDEAREN AURKEZPENA

Parte hartzeko eskabideak eta eskatutako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez baino ezin izango dira aurkeztu, horretarako diseinatutako aplikazioaren bidez. Aplikazio hori bi helbide elektroniko hauetan eskuragarri dago: <https://www.fomentosansebastian.eus/es/contratacion> eta <https://taldea.fomentosansebastian.eus>

Donostia Sustapenak eskabide bakarra baloratuko du hautaketa-prozesu bakoitzeko (lanpostua, sistema eta sarrera-modalitatea). Norbaitek lanpostu, sistema eta modalitate bererako eskaera bat baino gehiago egingo balu, Donostia Sustapenak sisteman erregistratutako azken eskaera bakarrik hartuko luke kontuan.

Eskaera-prozesuak 4 Fase ditu. Haiek guztiak derrigorrezkoak dira eta, beraz, fase guztiak osatzen ez dituzten eskabideak ezetsizat joko dira.

### 1. FASEA – Datu pertsonalak eta sisteman alta ematea.

Parte hartu nahi duen pertsonak alta eman beharko du sisteman, eskatutako informazio guztia betez (NANa, izen-abizenak, helbidea, harremanetarako datuak, etab.) eta, horrela, erabiltzaile bat eta pasahitz bat sortuz.

### 2. FASEA: Merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea

Erabiltzaile gisa alta hartu ondoren, eskaera bat egin ahal izango du parte hartu nahi duen hautaketa-prozesu bakoitzeko (lanpostua eta modalitatea)

Fase honetan, merezimenduak eta parte hartzeko baldintzak betetzen dituela alegatu beharko ditu eskatzaileak, bertan eskatzen diren atal guztiak eta xehetasunak betez eta hori justifikatzen duten dokumentuak gehituz. Atal honetan ere adierazi beharko du euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egin nahi dituen, baldin eta euskaraz jakitea nahitaezko baldintza ez bada.

Formulario elektronikoa izapidetzeko gomendioak:

- Gehien landu behar diren atalak testu dokumentu batean jasotzea eta gordetzea gomendatzen da, ondoren formularioko ataletan errazago txertatzeko; halaber, prestatutako informazioa galtzea saihestea gomendatzen da, formularioarekin gorabeheraren bat gertatuko balitz.

- Merezimenduen egiaztagiriak banaka erantsi beharko dira; horregatik guztiagatik, banaka eskaneatuta edukitzea gomendatzen dugu. Onartzen den gehienezko tamaina 10 MBkoa da fitxategi bakoitzeko.
- Argibideren bat behar izanez gero, gurekin jar zaitezke kontaktuan helbide elektronikoa honetan: [FomentoSS\\_taldea@donostia.eus](mailto:FomentoSS_taldea@donostia.eus)

### 3. FASEA: Erantzukizunpeko Adierazpena

Eskaera bete ondoren, bete duzun informazioa jasoko duen PDF dokumentu bat sortuko da; dokumentu hau sinatu egin beharko duzu, parte hartzeko baldintzak betetzen dituzula eta aitortutako datuak egiazkoak direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen gisa. Dokumentu hori behar bezala sinatu beharko da, ziurtagiri digitala edo eskuz egindako sinadura erabiliz.

### 4. FASEA: Eskabidea formalizatzea.

Erantzukizunpeko adierazpena sinatu eta gero, dokumentu hori plataformari erantsi eta eskaera formalizatu behar da, "**ESKABIDEA IGO ETA FORMALIZATU**" botoia sakatuta; jarraian, eskatzaileak berrespen mezu elektronikoa jasoko du emandako helbidean. Mezu elektronikoa horretan "kode bakar" bat agertuko da, hautaketa-prozesu osoan eskabidea identifikatzeko erabiliko dena.

Eskabide prozesu osoa behar bezala formalizatu ez duten izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Formalizatu den eskaera zuzena ez bada, interesdunak beste eskaera bat egin ahal izango du lanpostu bererako. Eskabide berriak automatikoki baliogabetuko du erregistratutako lehen eskaera.

## **3. HAUTAKETA-PROZESUAREN GARAPENA**

---

Hautaketa-prozesua garatzeari begira ondoko mugarrak aurreikusten dira:

### **3.1. HAUTAKETA-PROZESUAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN ZERRENDAK**

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eskabide guztiak berrikusiko dira hautaketa-prozesurako eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen direla egiaztatzeko, eta onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

Zerrenda horietan, hala dagokionean, baztertze arrazoia zein den adieraziko da, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetan egon litezkeen akatsak zuzentzeko. Epea, aipatutako zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da. Aipatutako epea igarota, eta erreklamazioak behin ebatziz gero, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen bada baldintzaren bat ez dela betetzen, interesdunak eskabidetik erator daitezkeen parte hartzeko eskubide guztiak galdu egingo dituzte, faltsutasunagatik sor daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

### 3.2. OPOSIZIO FASEA

Oposizioaldian, gaitasun profesionala baloratuko da proba baten bidez. Proba horretan, galdera sorta bat izango da, erantzun aukera bat baino gehiago izango dituen.

Erreferentziako edukiak Donostia Sustapenak bultzatutako ildoak, programak eta proiektuak izango dira eta horien inguruko informazioa bere webgunean aurki daiteke ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)). Hiriaren egoera ekonomiko eta sozialaren ezaguera ere kontuan hartuko da. Azken kasu horretan, erreferentzia gisa har daiteke, besteak beste, Donostia Sustapenak argitaratzen dituen eta bere webgunean aurki daitezkeen 2021 Urteko Barometroren informazioa.

<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/ezagutu-gaitzazu/ezagutu-donostia/hiri-behatokia>

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie email bidez, eta [www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa](http://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa) webgunean ere egingo da deialdia. Deitzen zaienean pertsona bat edozein probetara aurkeztu ez bada, bertan parte hartzeko eskubidea bertan behera geratuko da automatikoki, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak arrazoituta balioetsitako kasuetan izan ezik.

Oposizio fasea bukatuta, oposizioaren behin-behineko emaitzak argitaratuko dira.

Behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

### 3.3. LEHIAKETA FASEA

Jarraian azaltzen den prozedurari jarraituz, alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen informazioa, kalifikazioa, balorazioa eta egiaztapena egingo dira, oinarri espezifikotan hautaketa-prozesurako ezarritako baremoen arabera; eta dagozkien zerrendak argitaratuko dira.

#### 3.3.1. EGINDAKO AUTOBAREMAZIOAREN INFORMAZIO ZERRENDAK:

Hautaketa-prozesuan onartutako eskabideen kasuan, izangaiaren puntuazioaren behin-behineko informazio zerrenda argitaratuko da beraren autobaremazioaren arabera.

Autobaremazioak esperientzia eta prestakuntza ataletan lortutako puntuazioa barne hartzen du. Euskara eskatzen ez den lanpostuetan euskarari dagokion puntuazioa ez dago barne sartuta.

Zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 3 egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko eta zerrendetan egon litezkeen akatsak edo omisioak zuzentzeko.

Hasieran egindako eskabidean espezifikatu ez diren merezimendu berriak alegatzea dakarten erreklamazioak edo zuzenketak ez dira onartuak izango.

Epe hori igarota, eta erreklamazioak behin ebatziz gero, onartutako pertsonen behin betiko zerrendak eta haien puntuazio osoa argitaratuko dira, formulario elektronikoan kalkulaturako autobaremazioaren arabera.

Autobaremazioaren informazio zerrendetan agertzeak ez du esan nahi autobaremazio bidez merezimenduei emandako puntuazioa baliozkotzat eta egiaztatutzat jotzen denik.

### 3.3.2. ALEGATUTAKO MEREZIMENDUEN KALIFIKAZIOA, BALORAZIOA ETA EGIAZTAPENA

Hautagaiak metatutako puntuazioaren arabera ordenatu ondoren (oposizio fasea gehi autobaremazioa), merezimenduak egiaztatuko dira.

Izangai kopuru jakin batek hartuko du parte fase honetan; metatutako puntuazioaren arabera, izangai horiek izango dira puntuazio handiena atera dutenak, eta, deitutako plaza-kopuruaren arabera zehazten den hautagai kopuruaren barruan daudenak.

Lehiaketa-fasean parte hartuko duten izangaien gutxieneko kopurua honako hau da:

- 9 izendagai euskara eskatzen den lanpostuetarako.
- 3 izendagai euskara eskatzen ez den lanpostuetarako.

Hala ere, azken tokia betetzeko puntuazio berdinarekin berdindutako izangaiak daudenean, berdindutako pertsona guztien merezimenduak egiaztatu eta baloratuko dira.

Lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko zaizkien izangaien artean sartuko dira, halaber, euskara baldintza ez den hautaketa-prozesuetan euskara-probak egitea eskatu dutenak, baldin eta, eskakizun puntuagarriren bat egiaztatuz gero lor dezaketen puntuazioarekin, baloratu beharreko gainerako izangaien puntuazio bera edo handiagoa lortzen badute.

Hautaketa-Batzordeak egiaztatu eta baloratuko ditu alegatutako merezimenduak, oinarri espezifikoetan hautaketa-prozesurako ezarritako baremoen arabera; eta izangai bakoitzari dagokion puntuazioa emango zaio baremo horien arabera eta alegatu eta egiaztatu dituen merezimenduen arabera.

Behin autobaremazioa egiaztatuz gero, eta izangai guztiak kalifikatu ondoren, izangairen batek autobaremoan alegatutako baino puntuazio txikiagoa izango balu, hautaketa-batzordeak hurrengo izangaiaren edo izangaien merezimenduak egiaztatuko lituzke, zehaztutako izangai kopurua bete arte.

#### **Aplikatu beharreko irizpideak:**

Merituak kontuan hartzeko erreferentzia-data parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da (Euskara merezimenduarena izan ezik).

Parte hartzeko eskabidean behar bezala alegatu eta egiaztatu diren merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan, akats materialak, akats aritmetikoak edota egitatezko akatsak zuzentzeko aukeraren kalterik gabe. Era berean, ez dira baloratuko behar bezala egiaztatuta ez dauden merezimenduak, ez eta dagokion baremoaren arabera merezimendua baloratzeko beharrezkoak ez diren datuak jasotzen ez dituzten dokumentuak ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da onartuko inolako dokumentaziorik aurkeztea, aldez aurretik alegatutako merezimenduei buruzko datuak egiaztatzeke edo zabaltzeko Donostia Sustapenak berariaz eskatutakoa izan ezik. Era berean, edozein unetan eskatu ahal izango da jatorrizko dokumentua aurkeztea edota datuak egiaztatu eta baloratzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio osagarri aurkeztea.

Emandako zerbitzuak baloratzeko baremoa (esperientzia profesionala), lanaldi osoan emandako zerbitzuei dagokiena da. Hala ere, lanbide esperientziaren ondorioetarako, baloratu egingo da izangaiak zenbat denbora eman duten eszedentzia-egoeran senitartekoak zaintzeagatik edo genero

indarkeriagatik; zenbat denbora egotz dakiekeen amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzunkidean uztartzen erraztea helburu duten lanaldi murrizketei eta baimenei; eta zenbat denboraz erabili dituzten genero indarkeriagatiko baimenak enplegatu publikoek. Inguruabar horiek % 100ean hartuko dira aintzat, baldin eta aurkeztutako dokumentazioan behar bezala egiaztatzen badira.

Aldi bereko esperientziak lanaldi partzialean bakarrik baloratuko dira; % 100etik gorako lanaldiak ez dira aintzat hartuko.

Esperientzia-tipologia bakoitzean lan egindako aldien batura eginez egingo da zenbaketa, eta, esperientzia batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak baztertuz. Ondorio horietarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

### **3.4. EUSKARA PROBA**

Lanpostuan sartzeko baldintza gisa hizkuntza-eskakizunik ezarrita ez duten plazak lortu nahi dituzten izangaiantzat, proba hau borondatezkoa eta ez-kanporatzailea da.

Eskabidean probak egin nahi dituztela adierazi duten izangaiei bakarrik egingo zaie euskara proba egiteko deia, baldin eta, beren puntuazioaren arabera, deialdian lanpostu bat matematikoki lor badezakete.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, eta deialdiaren unean edozein probatara ez aurkezteak berekin ekarriko du bertan parte hartzeko eskubidea automatikoki bertan behera geratzea; ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak askatasunez balioetsitako kasuetan izan ezik.

Donostia Sustapenak aldeztu aurretik deitutako lanpostuak egonkortzeko eta enplegua egonkortzeko ohiz kanpoko prozesuen esparruan egindako euskara-proben bidez egiaztatutako euskara-maila kontuan hartuko da. Kontuan hartu ahal izango da, izangaia hala eskatuz gero frogatutako deialdia egiten den unean egiten da.

### **3.5. AZKEN SAILKAPENA**

Balorazioa amaitutakoan (oposizioa, lehiaketa eta, hala badagokio, euskara), hautaketa-prozesuari dagozkion behin-behineko azken sailkapenak argitaratuko dira.

Izangai bakoitzaren behin-behineko azken kalifikazioa oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko ataletan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du; horri euskararen ezagutzaren balorazioa gehituko zaio lanpostua lortzeko baldintza ez den kasuetan, hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoen adierazten den baremoari jarraituz.

Behin-behineko azken sailkapenaren zerrendan hautagai bakoitzaren lehentasun ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako berdinketa hausteko irizpideak hurrenez hurren aplikatuz.

Aipatu iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute egoki iriztitako erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaitutakoan, aurkeztutako erreklamazioak aztertuko dira, eta, ondoren, behin betiko azken sailkapena argitaratuko da.

### 3.6. DONOSTIA SUSTAPENEAN LANEAN HASTEA

Hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak oinarri orokorretako zazpigarren klausulan ezarritako prozedurei jarraituz hasiko dira lanean sozietatean.

### 3.7. JAKINARAZTEKO ETA KOMUNIKATZEKO BIDEA

Hautaketa-prozesuan zehar, prozesuen garapenarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazio guztia helbide elektronikoa honetan jakinaraziko da, jakinarazpen ondorioetarako: <https://www.fomentosansebastian.eus/es/contratacion> (zerrendak, probak egiteko deialdia, emaitzak,...).

Egin beharreko banakako beste komunikazio eta jakinarazpen batzuen ondorioetarako, lehentasunezko bidetzat hartuko da parte hartzeko eskabidearen formularioan adierazitako helbide elektronikoa, salbu eta, geroago, izangaiak berariaz eta modu sinesgarrian beste posta elektronikoa bat komunikatzen badio deialdia egin duen organoari.

### 3.8. ERREKLAMAZIOAK/ALEGAZIOAK:

Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte jakinarazpenetarako definitutako argitalpen bidean ([www.fomentosansebastian.eus/es/contratacion](http://www.fomentosansebastian.eus/es/contratacion)) egiten diren argitalpenen ondoren, hurrengo 3 egun baliodunetan, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Alegazioak eta erreklamazioak helbide elektronikoa honetara bidali behar dira: [FomentoSS\\_taldea@donostia.eus](mailto:FomentoSS_taldea@donostia.eus), eta eskabidearen identifikazio kodea jaso beharko dute beti.

### 3.9. PARTE HARTZAILEEN IDENTIFIKAZIOA:

Egin beharreko argitalpenei dagokienez, parte hartzeko eskabideak aurkeztu ondoren eskabide bakoitzari esleituko zaion kode bat erabiliz adieraziko da parte hartzailearen nortasuna. Eskaera formalizatzean, eskatzaileei berrespen mezu elektronikoa bat iritsiko zaie, esleitutako kodea jasoko duena.

Kode hori baliozkoa izango da hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioen eta emaitzen argitalpen guztietarako eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuaren barruan egiten diren bestelako jakinarazpenetarako.

Donostia, 2023ko Azaroaren 24